

DATU PERTSONALAK BABESTEAREN GAINeko INFORMAZIOA

Datu pertsonalen tratamendua honako arau hauen arabera egingen da: 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua (DBEO) indargabetzen duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa.

Erregelamendu horren 13. artikuluan xedatutakoa betetzeko, hauxe jakinarazten da:

TRATAMENDUAREN ARDURADUNA	Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua Tomás Caballero parkea 1. 31006 Iruña. desarrollo.economico@navarra.es Nafarroako Gobernuak Datuak Babesteko Ordezkaritza Karlos III.aren etorb. 2. 31002 Iruña. dpd@navarra.es
TRATAMENDUAREN XEDEA	Helburu nagusia Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legean araututako kenkaria izapidetzea da, ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoaren jarduerak egiteagatik. Gainera, aurreikusi da helburu estatistikoetarako erabiltzea. Emandako datu pertsonalak gordeko dira tratamenduaren helburuak betetzeko behar den denbora guztian.
TRATAMENDUAREN LEGITIMAZIOA	Tratamenduaren legitimazioa, DBEOko 6.1.e) artikuluan aurreikusitakoa da: "Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean eginkizun bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari esleituriko botere publikoetan jarduteko".
DATUEN JATORRIA	Identifikazio datuak, harremanetan jartzekoak, sozioekonomiko eta finantzarioak eta, behar denean, lan jardunari buruzkoak, batez ere eskabidean emanen dituzunak. Beste batzuk harreman administratiboan zehar sortzen dira, eta beste zenbait, berriz, administrazio eta erakunde publiko nahiz pribatuak jaso beharrekoak dira, kudeaketa egokia egingen bada.
DATUEN HARTZAILEAK	Datuak lagatzen ahalko zaizkie Nafarroako Gobernuaren beste organo batzuei, baita beste administrazio publiko batzuei edo kontroleko agintari, epaimahai eta erakundeei ere beren egitekoak bete ditzaten. Finantza entitateei ere lagatzen ahalko zaizkie, ordainketak kudeatzeko eta legezko betebeharrengatik.
ESKUBIDEAK ZURE DATUAK EMATEN DITUZUNEAN	Zure datuei dagokienez honako eskubide hauek erabil ditzakezu: - Datuetan sartzeko eskubidea: jakiteko zer datu ari diren tratatzen. - Zuzentzeko eskubidea: okerrekoak edo osatugabeak direnean. - Mugatzeko eskubidea: tratamendua mugatzeko; kasu horretan, bakarrik erabiliko dira erreklamazioak aurkezteko edo defendatzeko. - Kontra egiteko eskubidea: zure datuen tratamendua eten dadin, salbu eta bidezko arrazoi larriak badaude edo erreklamazioak aurkezteko edo defendatzeko. - Ezabatze eskubidea: zer helbururekin jaso ziren, xede horretarako beharrezkoak ez diren datuak ezerezteko. - Datuak eramangarriak izateko eskubidea: zuri zure datuak ematekoa, gero beste arduradun bati emateko. - Baimena baliogabetzeko eskubidea: esan nahi du edonoiz egin daitekeela atzera baimenean, tratamendurako baimena eman ondoren, horrek eraginik ez duela emandako baimenean oinarrituriko tratamenduaren zilegitasunean, eta hortik etor daitezkeen ondorioekin.

Eskubide horiek erabiltzeko, idazki bat aurkeztuko duzu, Ekonomiaren eta Enpresen Garapen Departamentuari zuzendua.

Zure eskubideak erabiltzeko idazkien ereduak Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren webgunean aurkituko dituzu (www.agpd.es).

Halaber jakinarazten zaizu erreklamazioa aurkez diezaiokezu bai kontrol agintaritzari, datuen babesaren alorrean eskumena duenari, bai Nafarroako Gobernuak Datuak Babesteko ordezkaritari.